



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Denak bizirik baitaude harentzat”

2022ko azaroaren 13a  
Urteko 33. igandea (C)

### Lukas 21, 5-19.

Aldi haretan, batzuek tenpluari buruz ziharduen, harri ederrez eta emoitzez apainduta egoala aitatzuz. Orduan, Jesusek esan eutsen: «Etorriko da, hor ikusten dozuezan guzti horreetatik harririk harri gainean geldituko ez dan sasoia: dana hondatuko dabe».

Ikasleek itaundu eutsoen: «Maisu, noiz jazoko da hori? Eta zertan ezagutuko dogu jazotera doala?»

Jesusek erantzun eutsen: «Kontuz, ez zagiezala inork engainatu! Asko etorriko dira nire izenean, "neu naz Mesias" edo "gainean da sasoia" esaten. Ez joan holakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenengo jazo beharrekoa da-eta guzti hori; baina ez dator behingoan azkena».

Esan eutsen, gainera: «Nazinoa nazinoaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka jagiko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurrite eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak jazoko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan. Baina guzti hori jazo aurretik, eskua ezarriko deusue eta erasoko, sinagogetara eta kartzeletara eroango zaituee, eta errege eta agintarien aurrera zuzenduko nigaitik. Autormena egiteko aukerea emongo deusue guzti horrek. Hartu gogoan ez dozuela zeuen burua zelan defendatuko kezkatzen ibili beharrik: Neuk adierazoko deusuet zer eta zelan esan, eta zuen arerioetako inork ez dau zuei aurre emoterik edo erantzuterik izango. Zeuen gurasoek eta senideek eurek, ahaide eta adiskideek eurek salduko zaituee, eta zuetako batzuk hilgo; guztiak gorroto izango zaituee nigaitik; baina ez dozue buruko ule bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko dozue bizia».

“Gudu ta matxinadak jazo beharra izan arren, ez ikaratu, dinotse Jesusek ikasleei. Eroapenez, bizia onik atarako dabe”

## KRISIALDIAK

*Jose Antonio Pagola*

Ebanjelioetan badira izaera apokaliptikoa duten testu batzuk; halakoetan ez da izaten gauza erraza jakitea zein den Jesusen beraren mezua eta zein lehen kristau-elkarteen kezkak eragindakoa; hain zuzen ere, egoera tragikoetan nahastuak diren eta, ordu berean, aldien azkena pertsekuzioen artean larri bizi dutenen kezkak eragindakoa.

Lukasen kontakizunaren arabera, aldi zailek ez dute izan behar ez lantu-aldi eta ez adorea galtzeko une. Ez dute izan behar etsipenerako eta ihes egiteko aldi ere. Besterik da Jesusen ikusmoldea. Hain juxtu, krisialdietan «*testigantza egiteko aukera izango duzue*». Halakoetan izango dugu abagunerik hobena testigantza egiteko, Jesusekiko eta haren egitasmoarekiko geure atxikimenduz.

Denbora urte daramatzagu jada krisia jende askori gogor ematen ari zaiola. Aldi honetan gertatuak, krisi hori eragiten ari den gizarte-kalte eta sufrimendua errealismoz ezagutzeko bidea demaigu. Ez ote da iritsi ordua, nola ari garen erreakzionatzen galdera egiteko?

Agian, hondo-hondoko geure jarrera berrikustea da lehenengo gauza. Erantzukizuneko jarrera hartu ote dugu, geure baitan oinarriko solidaritate-zentzu bat esnatuz ala geure patxada koloka jar lezakeen orori bizkarra eman ez bizi gara? Zer egiten dugu geure kristau-talde eta -elkarteetatik? Jarduera eskuzabaleko ildo bat markatu al dugu ala geure fedea gertatzen ari denetik urruti ari gara bizitzen?

Krisialdi hau haustura sozial zuzengabea ari da urratzen bi talde hauen artean: etorkizunari begira beldurrik gabe bizi gaitzekoon eta gizartetik zokoraturik eta inolako aterabiderik gabe gelditzen ari direnen artean. Ez al dugu sentitzen geure bizitzan «murrizte» batzuk ezarri beharra, ondoko urteetan era soilago eta solidarioagoan bizi ahal izateko?

Pixkana, hurbilagotik ari gara ezagutzen babesik gabe eta baliabiderik gabe gelditzen direnak (inolako sarrerarik gabeko familiak, luzaroko lanik gabek, gaixo diren etorkinak...). Kezkatzen al gara begiak irekitzeaz, ikusteko, ea konprometitzen ahal garen zenbait jenderen egoera arintzen? Plantea al genezake ekimenen bat geure kristau-elkartean?

Ez dezagun ahaztu, krisialdiak ez duela sortzen pobretze materiala bakarrik. Gainera, segurtasunik eza, beldurra, ezintasuna eta porrotaren esperientzia eragiten du. Egitasmoak hautsi, familiak hondoratu, esperantza galdu. Ez ote dugu berreskuratu behar familiarrekoen laguntzaren garrantzia, auzokoen arteko sostengua, kristau-elkartetik harrera eta laguntza eskaintzea...? Ezer gutxi izan daiteke jatorrago une hauetan batak bestea zaintzen ikastea baino.